

SUSTAPENAREN OINARRIAK

Oparitu zeure buruari lasaitasuna... eta hoteleko 3 gau zoragarri 2026KO EHorzketa-ASEGURUAREN KANPAINA

Agiri honek «Oparitu zeure buruari lasaitasuna... eta hoteleko 3 gau zoragarri» kanpainako sustapenen baldintzak bildu eta zehazten ditu, **Oinarrizko Ehorzketa Aseguruaren kontratazio berrietarako**. Aseguruok, konpainiaren oinarrizko arauak ez ezik, kanpainaren baldintzak ere bete beharko dituzte.

1.- Kanpainaren datak

Sustapena **2026ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2026ko abenduaren 31n amaituko da**. Hala ere, eten edo bertan behera utzi ahal izango da edonoiz, horretarako bidezko arrazoirik bada. Sustapenez baliatu ahal izateko, 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra bitartean kontratatu behar da poliza (eragin-datak, berriz, 2027ko martxoaren 31ra arteko muga izango du).

2.- Eskaintza eta baldintzak

Hoteleko 3 gau oparituko ditugu kontratatuko Oinarrizko Ehorzketa Aseguru bakoitzeko, betiere produktuaren eta kanpainaren baldintza hauek betetzen badituzte:

2.1.- Produktuaren baldintzak

- **Ehorzketa Asegurua kontratatu behar da, Oinarrizkoa modalitatekoa, eta primak 100 €-koa edo handiagoa izan behar du**. Arriskuak aseguratzailearen kontratazio-arauen barruan hartuko dira.

2.2.- Kanpainaren baldintzak

- Polizak urtebetekoa izan beharko du, eta berriztagarria.
- Aseguruaren ordainketak LABORAL Kutxako kontu batean egon behar du helbideratuta.
- Hoteleko 3 gauen oparia emateko, trukatzeko kode bat duen kupoi-txartel bat bidaliko zaio irabazleari, oparia jasotzeko eskubidea ematen duen aseguruaren ordainagiria kobratu ondorengo 30 egunetan. Kupoi-txartela aseguru-konpainiak bidaliko du, Expertia Seguros de Decesos SAK, eta kodea <https://www.flexibreaks.eu/> webgunean baliozkotu beharko da. Webgunearen titularrak **Flexibreaks Internacional SA** enpresa da, sustapen-opariaren eta pizgarrien multinazionala, eta Expertia Seguros de Decesos SAK harekin kontratatu du zerbitzua.
- LABORAL Kutxaren kanal guztien bidez kontratatzen diren aseguruetarako balio du eskaintzak.
- Eskaintza hau ezin da beste kanpaina batzuekin batera erabili.
- Abantailak lortzeko eskubidea ematen duen poliza ordaindu ezean, aseguru-konpainiak eskubidea izango du opariaren kostuaren zenbatekoa berreskuratzeko.

3.- Sustatzailea

Caja Laboral Bancaseguros SLU, banka-aseguru-etako operadore lotetsia. Administrazio Erregistro Berezian inskribatuta dago, OV-0072 klabearekin. Arriskuaren aseguratzaileak: EXPERTIA Seguros de Decesos SA. Erantzukizun zibila eta finantza-ahalmena estalita ditu, indarrean dagoen legeriaren arabera. Kontsultatu aseguratzaileak hemen: www.aseguruak.laboralkutxa.eus.

4.- Aplikazio-eremua

Kanal hauek erabiliz kontratatutako aseguruetan aplikatuko da kanpaina: www.laboralkutxa.eus webgunea, aseguruetan espezializatutako telefono bidezko arreta-zentroa (901 100 200) eta Caja Laboral Popularren banka-aseguru-etako operadore lotetsia den Caja Laboral Popularren banaketa-sarea —Bitartekarien Erregistro Administratibo Berezian dago inskribatuta, C572F20022109 zenbakiarekin—.